

# Ikastetxeko jarduera fisiko eta kirol proiektua

**Autor:** Mugica García, Mikel (Graduado en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte).

**Público:** Profesores de educación física, coordinadores de deporte escolar. **Materia:** Educación Física, Deporte escolar. **Idioma:** Euskera.

**Título:** Ikastetxeko jarduera fisiko eta kirol proiektua.

## Resumen

Jarraian Ikastetxeko Kirol Proiektu baten aurkezpena egingo da. Zarauzko Orokieta Herri Eskolak bere Ikastetxeko Kirol Proiektua berritzeko eskaera egin digu. Orokietak bere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren eta Ikastetxeko Kirol Proiektuaren arteko lotura uztartu nahi du nagusiki, hau da, ikastetxearen baloreak kirol proiektuan ere islatu nahi ditu. Beraz, proiektu honen helburu nagusia honako hau izango da: IHP eta IKP arteko lotura aztertzea eta zubiak eraikitzea. Honetarako, ikastetxeko ideologia (proiektua) eta eskola kiroleko jarduerak alderatu ditugu ahalik eta proposamen osatu eta amankomunena eskaintzeko.

**Palabras clave:** Jarduera fisikoa, kirol proiektua, kirola, Orokieta Herri Eskola.

**Title:** A school's physical activity and sports plan.

## Abstract

The public school Orokieta Herri Eskola has asked us to update the school's physical activity and sports plan. The school wants to enforce the links between the school's education plan and the sport plan, that is, reflect the school's values and philosophy also in the sport plan. So, the main objective of this work is to analyze the relationship between the education plan and sport plan of the school and enforce the links between them. For that we aim to compare the philosophy of the school with the types of sport activities that are held.

**Keywords:** Physical activity, sport, sport plan, Orokieta Herri Eskola.

Recibido 2018-01-31; Aceptado 2018-02-07; Publicado 2018-02-25; Código PD: 092108

## Sarrera:

Jarraian Ikastetxeko Kirol Proiektu baten aurkezpena egingo da. Zarauzko Orokieta Herri Eskolak bere Ikastetxeko Kirol Proiektua berritzeko eskaera egin digu. Orokietak bere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren eta Ikastetxeko Kirol Proiektuaren arteko lotura uztartu nahi du nagusiki, hau da, ikastetxearen baloreak kirol proiektuan ere islatu nahi ditu. Beraz, proiektu honen helburu nagusia honako hau izango da:

- IHP eta IKP arteko lotura aztertzea eta zubiak eraikitzea. Honetarako, ikastetxeko ideologia (proiektua) eta eskola kiroleko jarduerak alderatu ditugu ahalik eta **proposamen osatu eta amankomunena** eskaintzeko.

## Ikastegiaren ezaugarriak:

Orokieta Herri Eskola Zarauzko eskola publikoa da eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ikasketak egiten dira bertan. Eskolak hainbat kirol instalakuntza ditu, hala nola, kirol pistak, frontoi estalia, gimnasioa, eta psikomotrizitate gela. Horrez gain, Itsasmendiko atletismo pista eskolatik 50 metrotara dago, herriko kiroldegia 500 metrotara eta hondartza kilometro batera.

Orokietako Hezkuntza Proiektuak bertako haurrek gaur egungo gizarte konplexuan bizi ahal izateko gaitasun eta trebetasunak garatzea lortu nahi du. Oro har, haurrengan sustatu nahi dituen gaitasunak hauexek dira: informazioaren aukeraketa eta prozesatzekoa, pertsona autonomoa izatekoa, erabakiak hartzekoa, taldean lan egitekoa, balioanitzatza izatekoa. Horrez gain, pertsona guztien aniztasuna berriazko balio-balore gisa hartzen duen eskola da, komunitate osoaren bizikidetzatza demokratikoa sustatu eta ikasle guztien aukera berdintasuna bermatu nahi duena. Balioei dagokienez, arreta berezia jartzen du kulturartekotasunean eta genero berdintasunean.

## Ze ikasle mota lortu nahi da Orokietan?

Pertsona autonomo eta proaktiboa (irtenbide sortzailea), hiritar kritikoa eta solidarioa (pertsonekin zein ingurugiroarekin), taldean lan egiten dakiena, bizitza osoan zehar ikasteko prestatua eta IKT teknologietan zein hizkuntzetan jantzia.

## Ikastetxeko Kirol Proiektua

Orokietan Herri Eskolak Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri zuen Eskola Kiroleko programarekin bat egiten du. Kirol programa honen helburu nagusia “kirolaren bidez hezteko” da. Hori dela eta, honako alderdiak kontuan hartzen dituen eskola kirola bultzatzen du eskolak:

- Adiskidetasun, arerioarekiko errespetu, talde lan balioak transmititzen dituen.
- Ikaslearen indibidualtasuna errespetatzen duena.
- Aukera berdintasuna bermatzen duena.
- Kirolaren bidez garapena bideratzen duena.

Guzti hau kontuan harturik, Orokietako Eskola Kirol proiektuak honako helburuak finkatu ditu eskola kirolerako:

- Seme-alabei harramenak egiteko erreztasunak ematea.
- Aniztasuna eta talde lana bultzatzea.
- Taldeen arteko kohesioa sendotzea.
- Euskararen erabilera normalizatzea.
- Hobetzeko gaitasuna sustatzea.
- Bizi ohitura osasuntsuak sustatzea, bizi estilo aktiboak eta aisiarako ohitura positiboak har ditzaten.
- Gatazkei aurre egiteko estrategia eraikitzaileak erakustea.
- Kirol espezialitate bakoitzeko oinarrizko arauak erakustea.

Jardueren dagokionez, antolaketa berezi bat du Orokietako Eskola Kiroleko. Kurtsoa bi zatitan banatzen da. Lehenengo zatian duela gutxi arte eskolaren ez diren kirol sorta berriak praktikatzeko dute ikasleek, besteak beste: arrauna, patinaia, surfa eta eskalada. Hala, 2-3 larunbatetan zehar jarduerak zehatz bat antolatzen da eta ikasle talde bakoitzari ordu jakin bat esleitzen zaio. Adibidez, arrauna tokatzen den larunbatetan ikasle talde ezberdinak ordu ezberdinetan joaten dira arraun egitera. 2-3 larunbatak igarotzen direnean, jardueraz aldatzen da eta prozesu berdina eramatean da aurrera jarduerak berriekin.

Lehenengo zatia amaitzen denean, bigarren zatiarekin hasten dira. Bigarren zatian “betidanik” landu izan diren jarduerak eskaintzen dira, hala nola: futbola, saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, esku pilota etab. Kasu honetan, betidanik eraman den antolaketa modua erabiltzen da, hau da, astero kirol-jarduerak ezberdin bat lantzen da.

## Proiektuaren azpihelburuak

Proiektuaren helburuak, ikastegiaren ezaugarriak, ikastetxearen hezkuntza proiektua eta ikastetxeko kirol proiektua kontuan izanik, honako azpihelburuak planteatu ditugu gure proiektua eraginkortasunez aurrera eramateko:

- Erabakien hartzea lantzen duten askotariko jarduerak eskaintzea haurren autonomia sustatzeko.
- Guztiontzako eskola kirola bultzatzea, aukera berdintasuna bermatzeko, arreta berezia jarriz genero berdintasunean eta kulturartekotasunean.
- Euskarazko jarduerak fisiko eta kirola bultzatzea, euskararen erabilera normalizatzea.

## Marko Teorikoa:

Eskola Kirola hezkuntza helburuekin egiten diren jarduerak fisiko eta kirol multzoa da, ikasleek eskola orduetatik kanpo egiten dutena, betiere eskolaren ardurapean (Ortuzar, 2000). Hortaz, kirol federatua federazioen menpe dagoen moduan,

eskola kirola ikastetxeen konpententzia da. Garrantzitsua da kirol federatua eta eskola kirola ezberdintzen jakitea, izan ere, helburu guztiz ezberdinak dituzte. Kirol federatuaren helburu nagusia kirolaren promozioa da, eta eskola kirolarena berriz, jarduera fisikoa eta kirolaren bidezko hezkuntza (Ortuzar, 2006). Ikus daitekeen moduan, eskola kirolak lotura estuagoa du heziketa fisikoarekin kirol federatuarekin baino.

Ortuzarrek dio (2006) eskola kirolaren kontzeptualizazio beharra dagoela, beste modu batera esanda, gaur egungo bibliografiak ez diola erantzunik ematen eskola kirolaren inguruan ditugun inkognita eta galderei. Eskola Kirolak identitatea emango dion zientzia bat behar du, garapen prozesuan lagundu eta galderei erantzuna emango diena.

Aurreko bi paragrafoetan eskola kirolaren ezaugarriak definitu ditugu eta gabezia garrantzitsuena aipatu dugu, eta honekin batera, gabezia horri erantzuna eman diogu. Eskola Kirolak zientzia bat behar duela esan dugu, identitatea emango dion zientzia bat. Horrez gain, aipatu dugu, eskola kirolak lotura estua duela heziketa fisikoarekin. Beraz, heziketa fisikoari identitatea ematen dion zientziak eskola kirolari ere eman diezaioke ezta?

60. hamarkadan Frantziako heziketa fisikoko irakasle batek hezkuntza fisikoa berritzeko proposamen bat argitaratu zuen. Proposamen hura egin ostean, Pariseko Sorbona Unibertsitatean psikologia, psiko-soziologia, matematikak eta hizkuntzalaritza ikasketak egin zituen. Ikasketa hauek proposamen hura garatzen lagundu zioten, bizitza proiektu bat osatu arte: heziketa fisiko zientifiko baten eraikuntza. Parlebasen ustez, heziketa fisikoaren krisitik irteteko modua zientzia izan behar zen (Martinez de Santos & Oiarbide, 2016). Proposamen horren fruitua Praxiologia motorra izan da.

Heziketa fisikoaren ikuspuntu berri bat hartzeak, pentsamendu eta aztura aldaketa bat suposatzen du. Heziketa Fisikoa, berea ez den ikuspuntu batetik abiatu beharrean, berea den objektu propio batetik abiatuz definitzen da: jokabide motorretik. Hala, Heziketa fisikoak jarduleen jokabide motorrean esku hartzea du helburu. Esku hartze honek jardulearen pertsonalitatearen dimentsio desberdinetan talka egin dezake: kognitiboan, afektiboan, erlazionalean, adierazpenekoan, etab. Hau da, heziketa fisikoko irakasleak esku hartze eraginkor bat egiten badu, berak sustatu nahi dituen helburu eta baloreetara orientatu dezake eragin hori (Martinez de Santos & Oiarbide, 2016).

Baina erlazionatu al daiteke heziketa fisikoa hezkuntza orokorrarekin Praxiologia motorraren ikuspuntua oinarri izanda? Noski baietz, guk ez dugu beste modurik ikusten hau egiteko. Euskal hezkuntza legearen orokortasunak aztertzen baditugu, Oinarrizko Hezkuntza helduarorako prestatzeko fasea da. Bertan ezartzen dira bizialdi osorako oinarri sendoak, ikasleak beren bizitzak zentzuz gidatzeko gai izan daitezen, bere helburuak hauta ditzaten, bere erabakien ardura har dezaten, beren egungo eta etorkizuneko premiak eta pertsonen zaintza beren gain har dezaten, eta modu aktibo, kritikoa eta arduratsuan parte har dezaten gizartean (236/2015 dekretua).

Kurrikulumak ematen duen definizioan, garrantzitsuak diren bi elementu aipatzen dira: gizartea eta erabakien hartzea. Hezkuntza helduarorako prestatzeko fasea da, baina guzti hau testuinguru jakin batean garatu behar da, gizarte batean. Honekin, Durkheim filosofo eta soziologo frantsesak proposatu zuen hezkuntzaren definizioarekin bat egiten du kurrikulumak: hezkuntza gizartekotze prozesu sistemiko bat da (Durkheim, 1976). Hala, hezkuntza ez da garapen prozesu gisa ikusten, baizik eta gizartekotze prozesu gisa. Haurrak ikasi beharreko balioak, gaitasunak, konpententziak eta autonomia ez dira elementu bereziak, baizik eta irakasleak edo eskolak duen gizarte ideologiarekin eta kulturarekin bat datozen elementuak dira. Izan ere, hezkuntza ideologikoa da.

Heziketa Fisikora itzuliz, Praxiologia motorrak heziketa fisikoari ematen dion definizioa aztertuko dugu: jokabide motorraren pedagogia (Parlebas, 2012). Jokabide motorra portaera motorrak eta honen esanahiak osatzen dute. Azken finean, jokabide motorra esanahiz betetako akzio bat da. Oro har, heziketa fisikoko irakaslearen zeregin nagusia hezigaien jokabide motorretan esku hartzea da eta jokabide motorrean esku hartzeko tresna eraginkorra jarduera motorrak dira (joko-jolasak, kirolak, naturako jarduerak).

Jarduera motor bakoitzak bere esentzia definitzen duen barne logika bat du. Parlebasek (2012) horrela definitzen du: egoera motor baten ezaugarri esanguratsuen sistema, eta dagokion akzio motorraren errealizatorako dakartzan ondorioak. Beste modu batera esanda, barne logika betebeharren sistema bat bezala kontsideratu daiteke, jarduera motorretan zehar jarduleen jokabide motorra mugatzen duen testuingurua.

Laburbilduz, hezkuntza gizartekotze prozesu sistemiko bat da, ideologikoa, eta Heziketa Fisikoa jokabide motorraren pedagogia. Baina nola betetzen ditu heziketa fisikoak lehen aipatu ditugun hezkuntzaren helburuak? Heziketa Fisikoko irakasleak jarduera jakin bat lantzea erabakitzen duenean, jarduera horren barne logikak hezigaien jokabide motorrean eragiten du zuzenean. Horrela, jokabide motorra, nahi duen norantzan orientatzen du irakasleak, kasu honetan, berak edo eskolak duen ideologiaren norantzan. Beraz, heziketa fisikoko eta eskola kiroleko zeregin garrantzitsuena jarduerak

aukeratzea izango da, izan ere, lantzen diren jardueren arabera, ideologia jakin bat bultzatuko da, eta ondorioz, pertsona mota jakin bat sortuko da.

## ONDORIO PRAXIOLOGIKOAK

### Jardueren sailkapena

Praxiologia motorra oinarritzat hartzen badugu, Eskola Kirol Proiektuko jardueren sailkapena orain arte egin ez den modu batean egin beharko da. Jarduerak ez dira talde kirol eta bakarkako kirolean banatzen, izan ere, sailkapen hau ez da guztiz zuzena. Horren ordez, sailkapen sakon eta zehatzago bat proposatzen du Parlebasek (2012), non 3 aldagai hartzen dituen oinarritzat: arerioa, kidea eta ziurgabetasuna. Hiru aldagai hauen presentzia edo ausentzia konbinatuz, 9 jarduera fisiko eta kirol mota desberdintzen dira.

Hala ere, proiektu honetan 3 multzotan orokortuko ditugu jarduerak: jarduera psikomotorrak, kirol soziomotorrak eta naturako jarduerak. Jarduera psikomotorrak jarduleen artean elkarrekintzarik ez dagoen jarduerak edo kirolak dira (adb: altura jauzia, 100 metro, patinaia, skatea). Jarduera soziomotorrak berriz, jarduleen artean elkarrekintza zuzena dagoen jarduera eta kirolak dira (adb: futbola, 1500 metro, txirrindularitza). Azkenik, natur jarduera taldeko ezaugarri garrantzitsuena ziurgabetasuna da. Naturako jarduerak etengabe espaziora egokitzera eta erabakiak hartzera behartzen dituzte jarduleak.

Laburbilduz, jarduera psikomotorrak partaideen arteko elkarrekintzarik gabeko jarduera ziurrak dira, hau da, ez dago elkarrekintzarik ezta espaziora egokitu beharrik. Jarduera soziomotorrak partaideen arteko elkarrekintza duten jarduera ziurrak dira, beraz, elkarrekintza dago baina ez espaziora egokitzeko beharrik. Azkenik, naturako jarduerak elkarrekintza izan dezakete (psikomotorrak edo soziomotorrak izan daitezke), eta uneoro erabakiak hartu eta espaziora egokitu beharra dago.

### Nola bihurtu kirolak hezigarri?

Lehenago aipatu dugun moduan, Kirol Proiektuaren helburuen artean talde lana, sozializazioa eta berdintasuna sustatzea aurkitzen dira. Hau lortzeko ordea, beharrezkoa da jarduleen arteko elkarrekin, izan ere, ez badago elkarrekintzarik ez da egongo sozializaziorik ezta talde lanik. Orduan zer gertatzen da jarduera psikomotorrekin?

Jarduera psikomotorrek ez dute jarduleen arteko elkarrekintzarik, baina eskola kirol testuinguruan gaudenez eta ez kirol federatuen testuinguruan, jarduerak guk nahi ditugun helburuetara bideratzeko aukera dugu. Hala, hasiera batean gure helburuak betetzen ez dituzten jarduerak eraldatzen baditugu, gure helburuetara bideratzeko aukera izango dugu. Adibidez, patinaia izatez jarduera psikomotor bat da, baina binaka edo taldeka lantzen badugu jarduera, jarduleen arteko elkarrekintza sortuko dugu, eta honekin batera jarduera psikomotor bat izatetik soziomotorra izatera igaroko da. Horrez gain, neska eta mutilen osatutako taldeak osatzen baditugu, genero berdintasuna ere sustatzeko aukera izango dugu.

Zein **arlotan sakonduko** duzuen, eta zergatik?

- Erabakien hartzean zentratuko gara, ikasleen autonomia garatze aldera, izan ere, Orokietako Hezkuntza Proiektuaren helburu nagusienetako bat ikasle autonomo eta proaktiboak sortzea da.
- Aukera berdintasunean zentratuko gara, genero berdintasunean eta kulturartekotasuna sustatuz, izan ere, Orokietako Herri Eskolak arreta berezia ematen die bi alderdi hauei.
- Euskarazko jarduera fisiko eta kirol lexikoa lantzean, euskararen normalizazioa bermatze aldera.

**Zeharkako lerroak** : Sozializazioa, talde lana eta talde kohesioa.

- Sozializazioa: adiskidetasuna, errespetua, harremanak
- Talde kohesioa eta talde lana

## Estrategiak

- Eskola Kirolaren eta Hezkuntza Proiektuaren arteko zubiak eraikitzeke Praxiologia motorraren ikuspuntua hartuko dugu oinarritzat.
- Erabakien hartzean zentratuko garenez, hauek sustatzen dituzten jarduerak landuko ditugu, besteak beste, Natur Jarduerak. Izan ere, ondorio praxiologikoetan aipatu bezala, ziurgabetasunaren presentziak, etengabe erabakiak hartzea eta ingurunera egokitzera behartzen ditu jarduleak.
- Natur jarduerak praktikatzeko monitore formatuak erabiliko ditugu, arriskua gutxitu eta jarduera lasaiago praktikatzeko. Horretarako, elkarte, mendi federakuntza eta mendi eskola ezberdinekin hitz egingo dugu akordio batera iristeko.
- Genero berdintasuna eta talde lana sustatze aldera, kirol psikomotorrak neska eta mutilez osaturiko taldeetan landuko ditugu, atletismoko lasterketak ezik. Atletismoaren kasuan, lasterketak ez diren froga guztiak (jauziak eta jaurtiketak) batera egingo dituzte neska eta mutilek.
- Eskola Kirolean, haurren autonomia eta berdintasuna sustatzeko, jarduera aproposak lantzeaz gain, kontzientziario/formazio tailerrak eskainiko ditugu guraso eta monitoreentzat.
- Eskola Kirolaren inguruko blog bat sortuko dugu, batez ere gurasoentzat zuzendua. Bertan, jarduera ezberdinen inguruko informazioa eta ekarpenak, sensibilizazio baliabideak, proposamenak, ohar garrantzitsuak eta bestelako elementu garrantzitsuak publikatuko dira.
- Euskararen erabilerari dagokionez, Euskara ikasgaiko saio batzuetan Euskarazko jarduera fisiko eta kirol lexikoa lantzea proposatuko diogu irakasleari.

## ANTOLAKETA

### Organigrama

Eskolako Jarduera Fisiko eta Kirol proiektuaren arduradun nagusia Eskola *Kiroleko koordinatzailea* izango da, nahiz eta uneoro, *Heziketa Fisikoko irakaslearekin* elkarlanean aritu beharko den. Izan ere, Eskola Kirolaren eta Heziketa Fisikoaren arteko zubia eraiki nahi badugu, ezinbestekoa izango da bi arduradun hauen arteko koordinazioa eta elkarlana.

Bigarren maila batean, *entrenatzaile/monitoreak* eta *gurasoak* egongo dira. Haien lana, talde zehatzen koordinazioa izango da, hau da, monitore bakoitzak talde bat izango du bere ardurapean eta talde horretako haurren gurasoek talde horren kudeaketan lagunduko diote monitoreari, betiere bere zeregin, ardura eta erabakietan eragin eta oztopatu gabe.

Azkenik, eskolako *zuzendaritza taldea* eta *gainontzeko eskolako irakasleak* izango ditugu. Zuzendaritza taldearen laguntza ezinbestekoa izango da jarduera bereziak antolatzerako orduan, batez ere, naturako jarduerak. Jarduera hauek izan ditzaketen arriskuen aurrean, laguntza handikoa izango da zuzendaritza taldearen sostengua. Horrez gain, eskolako gainontzeko irakasleen parte hartzea lagungarria izango da, alde batetik, ikastetxeko hezkuntza proiektuaren eta eskolako kirol proiektuaren arteko zubia eraikitzeke, eta bestetik, ikasle-irakasle harreman gertukoagoa sustatzeko.



## EKINTZA PLANA

### Urteko Jarduera Fisiko eta Kirol Plana

Eskolako Kirol planeko jardueren antolaketa Parlebasen (2012) jarduera fisiko eta kirolen sailkapenetik abiatuz egingo da. Plana 3 bloke ezberdinetan banatuko da: natur jarduerak kirol soziomotorrak eta kirol psikomotorrak. Bloke bakoitzak 2-3 hilabeteko iraupena izango du, eta natur jardueren blokea bi aldiz errepikatuko da kurtsoan zehar, zehazki, kurtso hasieran eta kurtso bukeran:

Iraila-Urria: natur jarduerak

Iraila: Surfa

Urria: Mendi ibilaldiak eta Eskalada

Azaroa-Otsaila: kirol soziomotorrak

Bi astero aldaketa: futbola, saskibaloia, eskubaloia, goalball, pilota, errugbia.

Otsaila-Apirila: kirol psikomotorrak

Atletismoa, txirrindularitza, patinaia eta skatea.

Maiatza-Ekaina: natur jarduerak

Maiatza: espeleologia eta bela

Ekaina: arrauna

HIL	IR	UR	AZ	AB	URT	OT	MA	AP	MAI	EK
ZER	Natur jarduerak		Kirol soziomotorrak (2 astero aldaketa)			Kirol psikomotorrak			Natur jarduerak	
	Surfa	Mendi ibilaldia eta Eskalada	Futbola, saskibaloia, eskubaloia, goalball, pilota eta errugbia			Atletismoa, txirrindularitza, patinaia eta skatea			Espeleologia eta bela	Arrauna

### Bi jardueren azalpena

Surfa (bi larunbat): iraileko tenperatura atseginak eta uda osoan zehar berotzen egon den itsasoko ur epela aprobetxatuz, surfa egingo da Zarauzko hondartzan. Surf eskola ugari daudela aprobetxatuz, ikasle talde ezberdinak surf eskola batekin jarriko ditugu. Hau da, Zarauzko haur guztiak surf eskola berdinean jardun ordez, eskola ezberdinetan banatuko ditugu. Horrela, monitoreek ikasle gutxiagorekin lan egiteko aukera izango dute, tratu individual eta gertukoago bat eskainiz. Gainera, arriskuaren kudeaketari begira, monitore bakoitzeko ikasle gutxiago egongo dira eta ondorioz, seguruagoa izango da jarduera.

Espeleologia: Orioko DYAKo erreskate taldea espezialista da espeleologian. Jada antolatu izan dituzte espeleologia saioak Orioko eta Usurbileko haurrekin. Kasu honetan, jarduera berezia izanik, ikasle talde bakoitzak larunbat bat dedikatuko dio jarduera honi. Hala, espeleologia bi larunbatetan zehar burutuko da, baina ikasle talde bakoitzak behin soilik praktikatu du jarduera. Ikasleek ez dute inolako material berezirik eraman behar, izan ere, espeleologia taldekoek guztientzako materiala dute. Kobazuloa (tokia jarri) dago kokatua, guztiz toki segurua da eta makina bat aldiz egin dute espeleologia taldekoek beste haur talde askorekin. Kobazuloraino joateko autobusak egongo dira ordu ezberdinetan eta ikasle zein gurasoek joateko aukera izango dute.

## Baliabideak

**Formazioa:** eskolako kirol proiektua aurrera eramateko garrantzitsua deritzogu gurasoentzat zuzendutako sentsibilizazio/formazio tailerrak antolatzea. Bertan, gurasoek dituzten funtzioak eta jokabide egokiak azalduko zaizkie, eta baita eskola kiroleko proiektuaren funtzionamendua eta helburuak. Honekin lotuta, arreta berezia ipiniko da haurren autonomia lantzearen helburuan eta hau sustatzeko moduetan.

**Bloga:** eskola kirolaren inguruko informazio esanguratsua edonork eskura izateko asmoz, blog bat sortuko dugu. Baina bloga ez da izango jardueren antolaketa (denboralizazioa) eta emaitzak argitaratzeko gune bat. Bloga ohar garrantzitsuak, kontaktua, antolaketa, sentsibilizazio baliabideak eta proposamen berriak argitaratzen diren gunea izango da.

**Monitore formatuak:** naturako jarduerak lantzerako orduan, antolaketa berezia eta jakintza profesionalak beharrezkoak direla iruditzen zaigu. Jarduerak, izatez, arriskua dute, baina kudeaketa egoki bat eginez gero, modu seguru eta antolatu batean eraman daitezke aurrera. Horretarako ordea, beharrezkoa izango da natur jardueretako monitore profesionalen laguntza. Laguntza hau lortzeko asmotan, Gipuzkoako Mendi Federazioarekin eta Kirolenerekin (Goi Mendi Eskola) hitz egingo dugu akordio bat proposatzeko asmotan: mendi ikasketak egiten ari diren ikasleei monitore gisa lan egiteko aukera eskainiko diegu gure asteburuko natur jardueretan. Hala, monitoreek diru pixka bat eta esperientzia irabazteaz gain, derrigorrezko praktika ordu batzuk kentzeko aukera izango dute.

## Bibliografía

- Durkheim, E. (1976). *Educación como socialización* (Vol. 2). Sígueme.  
Orokietako Kirol Proiektua  
Orokietako Hezkuntza Proiektua  
Oinarrizko Hezkuntza. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea
- Parlebas, P. (2012). *Léxico de praxiología motriz*. Paidotribo, Barcelona. ISBN: 978-91-637-4473-0.
- Parlebas, P. (2016). *Heziketa Fisiko Moderno Baterako Ikuspuntuak*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV-EHU, Bilbao. ISBN: 978-84-9082-458-0.